

Manuel de Larramendi (1690-1766)

Deia, 1983-08-24.

Lehenengo egunean Chahoz ari ginela aipatu genituen Arana Goiri-ren aintzindari batzu.

Urrunekoa bada ere, Larramendi da horietako bat.

Euskal herriaren eta euskararen alde gizon honek esan eta egin zituenak asko eta handiak dira; Euskal Herriaren eskubidez maiz eta sakonki aritua da, baina gai honetaz gehien aipatzen diren hitzak hauek dira: "¿Qué razón hai para que la nación vascongada, la primitiva pobladora de España y aún de vecindades... qué razón hai, vuelvo a decir, para que esta nación privilegiada y del más noble origen, no sea nación aparte, nación exenta e independiente de las demás?". Eta oraindik konketuago: "¿Por qué tres provincias de España (y no hablo ya del Reino de Navarra) han de estar dependientes de Castilla: Guipúzcoa, Alava y Bizcaia, y otras tres dependientes de Francia: Labort, Zuberoa y Baja Navarra?".

Hara Zazpiak Bat XVIIIgarren gizaldian.

Manuel de Garagorri y Larramendi Andoainen jaio zen "Garagorri" baserrian, 1690ean; uste denez, aitaren deitura, hau bigarren aldiz ezkondu zenean utzi zuen; 17 urte zituela sartu zen Josu-lagunek Bilbon zuten etxean eta hemen egin zuen prozesua 1726an. Gero Salamancan egiten dituzte urte batzu. 1734ean dator Loiolara, hemen biziko da hil arte, Josu-lagunak Loiolatik eta Espainiako erresuma guztiatik botetak izan ziren baino urtebete lehenago, *Azpeitiako Matxinada* lehertu zen urte berean, 1766an.

Idatzi zituen gehienak Euskal Herriaz eta euskera gai zutenak izan ziren, nahiz eta ia dena erderaz egin izan.

Hara zerrenda: *De la antigüedad y universalidad del vascuence* (Salamanca, 1728); *El imposible vencido* (lehen euskal gramatika), Salamanca bertan, 1729an; *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria* (euskaldunak hor ote ziren), Madrilen 1736; bi bolumenetan *Diccionario Trilingüe del castellano, vascuence y latín*, Loyolan zela idatzi zuen, 1754 inguru, *Coreografía de Guipúzcoa*, nahiz eta (zentzura dela eta), mende eta laurden gero arte inprimatua izan ez bazan ere 1882an).¹

Euskaraz oso gutxi idatzi zuen: Aita Mendibururen *Jesusen Biotzaren Devozioa-n* hitzaurrea; Larramendi beraren hiztegiari egin zion hitzaurreko zatitxo batzu; *Coreografiaren* sarreran berdin; bere gramatikaren amaieran agertzen diren poesia batzu, eta San Agustini eskeinitako sermoia (1855).

¹ Mende honetan, 1950ean, eta Buenos Airesen, birrargitaratu zuen *EKIN* argitaldaria; 1969an argitaratua izan da beste edizioa, J. Ignacio Tellechea Idigoras-en eraginez gainera honen sarrera ederra, ohar aberats eta aurkibidearekin. Langile argi eta jakintsu honek berak argitaratu du lehenengo aldiz Larramendiren *Autografía y otros escritos*, 1973 eta beste batzu argitaratzeko ahalegin handietan ari da.